

DONOSTIA-SAN SEBASTIANGO UDALA

IRAGARPENA, Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko 7/2 poligonoko Puio-Lanberri sektoreko Plan Partzialaren hasierako onespenera buruzkoa.

9630

AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del Plan Parcial del Sector Puyo-Lanberri del Polígono 7/2 del Plan General de Ordenación Urbana.

9630

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA,
LEGE ARAUBIDE
ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA**

2931

245/1992 DEKRETUA, irailaren 15ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko lan-istripuen eta lanbide-gaisotasunen gorabeheretatiko babes arautzeari buruzkoa.

Estatuko 1990erako Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 4/1990 Legeaz geroztik, eta lege horren hamalagarren xedapen gehigarriak diotenaren ondorioz, administrazio publikoak, horien agintepeko erakundeak eta enpresa eta elkarte publikoak, enpresa pribatuen pareko dira Gizarte Segurantzari buruzko Legearen 204. atala ezartzeari dagokionez.

Ondorioz, aipatutako erakundeek eta enpresek, lehen ez bezala, Gizarte Segurantzaren Lan-Istripu eta Lanbide-Gaisotasunetarako Mutua Patronalari atxikitzearen bidez arautu dezakete bertan diharduten langileak lan-istripu eta lanbide-gaisotasunetatik babesteko gaia.

Sistema horrek, kudeaketa eginkorragoa izatearen abantaila ekarriko dio onuradunari, zuzendaritzan eta kudeaketan parte hartu ahal izango da eta zerbitzuen kalitatea areagotu egingo da. Ahaztu gabe, jakina, Osakidetzarekin eta beste zenbait osasun-erakunderekin lankidetzan aritzeko eratu daitezkeen bideak, osasun-sorospidetzaari dagokionez.

Hori horrela, behar ziren txostenak eta erizpideak eskatuta, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuak eta Ogasun eta Finantza Sailburuak proposatuta eta Jaurilaritzaren Kontseiluak 1992ko irailaren 15ean izandako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

Lehenengo atala.— Dekretu hau Autonomi Elkarteko Administrazioan, administrazio horren autonomiadun erakundeetan eta Zuzenbide Pribatuko erakunde publikoetan ezarriko da.

Bigarren atala.— Dekretu honen ezarpen-eremuak

**DEPARTAMENTOS DE PRESIDENCIA,
REGIMEN JURIDICO
Y DESARROLLO AUTONOMICO
Y HACIENDA Y FINANZAS**

2931

DECRETO 245/1992, de 15 de septiembre, sobre formalización de la protección de las contingencias de accidente de trabajo y enfermedad profesional en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

A partir de la Ley 4/1990, de 29 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 1990, y por efecto de su disposición adicional decimocuarta las Administraciones Públicas, organismos de ellas dependientes, empresas y sociedades públicas reciben el mismo tratamiento, en cuanto a la aplicación del artículo 204 de la Ley General de la Seguridad Social, que las empresas privadas.

En consecuencia, las entidades, organismos y empresas referidas quedan liberadas del impedimento antes existente para formalizar la protección, respecto de las contingencias de accidente de trabajo y enfermedad profesional de personal a su servicio, por el sistema de asociación a una Mutua Patronal de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social.

Este sistema conllevará la ventaja de una gestión más eficaz para el beneficiario, la participación en la dirección y gestión, su repercusión en la calidad de los servicios sin olvido de las fórmulas de colaboración con el Servicio Vasco de Salud-Osakidetza y otras instituciones sanitarias en lo que a la asistencia sanitaria se refiere.

En su virtud, previos los informes y consultas pertinentes, a propuesta del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y del de Hacienda y Finanzas, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 15 de septiembre de 1992,

DISPONGO:

Artículo Primero.— El presente Decreto es de aplicación a la Administración General de la Comunidad Autónoma, sus Organismos Autónomos y Entes Públicos de Derecho Privado.

Artículo Segundo.— La protección respecto a las con-

hartzen dituen langileak eta goi-kargudunak lan-istripu eta lanbide-gaisotasunen gorabeheretatik babesteko modua Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorrean eta horrekin bateragarri diren xedapenetan ezarritako neurrietan arautuko da, Gizarte Segurantzaren Lan-istripu eta Lanbide-Gaisotasunetarako Mutua Patronalei atxikiz.

Hirugarren atala.— Zein Mutua edo Mutuak aukeratu Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakiko du Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailak eta Ogasun eta Finantza Sailak beren proposamena elkar hartuta aurkeztu ondoren. Aukera egiterakoan ondare- eta finantza-egoerari, Euskal Autonomi Elkar-tean dituen osasun-zentruak eta, orokorrean, eskaintzen dituen zerbitzuei begiratuko zaie, bai eta kideek gobernu-organismoetan duten partaidetzari ere.

Horretarako, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak dagokion espediente gertatuko du prestatze-jarduerari ezarri dakizkiekeen printzipioak eta legedia betez, eta behar diren loturak gauzatuko ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Esku ematen zaie Administrazioa partaide den elkar-teetan dituen ordezkariak, bigarren atalean adierazita-ko babes-modua hartzeko bidea bultzatzen elkar-te horietan.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Atxikitze hori gauzatu eta benetakoa izan arte orain-go babes-moduari eutsiko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honen ezarpen-eremutik kanpo geratzen dira Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezien menpe dauden langileak.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizka-rian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko irailak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Lege Araubide
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

tingencias de accidente de trabajo y enfermedad profesional del personal y Altos Cargos incluido en el ámbito de aplicación del presente Decreto se formalizará, en los términos establecidos por la Ley General de la Seguridad Social y disposiciones concordantes, mediante el sistema de asociación a Mutuas Patronales de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social.

Artículo Tercero.— La determinación de la Mutua o Mutuas en que se efectúe la asociación será aprobada por el Consejo de Gobierno a propuesta conjunta de los Departamentos de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y del de Hacienda y Finanzas, atendiendo entre otros a la mejor situación patrimonial y financiera, a los centros asistenciales ubicados en la Comunidad Autónoma y, en general, a los servicios ofrecidos, así como la participación de los asociados en los órganos de gobierno.

A tal efecto la Dirección de Patrimonio y Contratación conformará el oportuno expediente con sujeción a los principios y legislación aplicable a las actuaciones preparatorias y formalizará las asociaciones pertinentes.

DISPOSICION ADICIONAL

Se autoriza a los representantes de la Administración en las Sociedades en que ésta participa para que promuevan en dichas Sociedades la adopción del sistema referido en el artículo segundo.

DISPOSICION TRANSITORIA

Hasta que se formalice y sea efectiva la asociación se mantendrá el actual sistema de protección.

DISPOSICION FINAL

Queda exceptuado del ámbito de aplicación del presente Decreto el personal sujeto a Regímenes Especiales de Seguridad Social.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de septiembre de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Régimen
Jurídico y Desarrollo Autonómico,
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.